

**HAINBAT UDALBATZATAKO AKTAK EUSKARAZ IDATZIAK ETA  
GAZTELANIAZKO BERTSIORIK GABE BIDALTZEAGATIK  
GOBERNUAREN ORDEZKARITZAK TARTERATUTAKO ERREKURTSOAK  
DIRELA-ETA XABIER ISASIK ESKATUTAKO AGERRALDIA  
LEGE BILTZARREAN (2015-03-02)**

Sailburuak esan duen bezala, dimentsio bikoitza duen gaia da hau: dimentsio juridiko-judiziala eta dimentsio politikoa.

Espainiako Gobernuaren Ordezkaritzak hainbat udali errekerimenduak egin eta errekurtsu judizialak jartzeari ekin zion une beretik, kezka handiz, harriduraz eta erabateko desadostasunez ari gara ikusten auzi hau. Izan ere, Gobernuaren EAEko Ordezkaritza zalantzan jartzen ari baita euskararen ofizialtasun betea. Euskaraz egindako aktei gaztelaniaren konpainia eskatzen baitie legezko balioa onartzeko. 1978ko Konstituzioaren ondotik, 1979ko Autonomia Estatutuak (lege organikoak) euskararen ofizialtasun betea ezarri zuen (gaztelaniarena “bezalako” ofizialtasuna, zehatz esanda), ez zuen ezarri euskara gaztelaniarekin “batera” ofiziala izatea, baizik eta gaztelania “bezala” izatea ofiziala euskara. Gaztelaniaren makulurik gabe da ofiziala euskara, adin nagusiko ofizialtasuna da euskarari aitortzen zaiona gure araubide juridikoan. Autonomia Estatutuaren printzipioa da hori, eta gure iritzian, makulurik gabeko ofizialtasun betearen printzipio horri kontrajarrita dago Gobernuaren Ordezkaritza akten hizkuntzaren kasuan sustatzen ari dena, ez baitie balio legalik onartzen ofizialtasun erabatekoa duen hizkuntza batean –euskaraz- bakarrik idatzitako aktei. Eta jokabide hori gure iritzian ez dator bat, ezta ere, ez Konstituzioarekin (Konstituzioak gaztelania ez beste hizkuntzen ofizialtasuna aldarrikatzearekin batera, ofizialtasun hori arautzea, dagokion erkidego autonomoaren Autonomia Estatutuaren esku uzten baitu), eta ez dator bat ezta ere doktrina konstituzionalarekin berarekin, Auzitegi Konstituzionalak eman dituen hainbat epairekin esan nahi dut. Euskararen ofizialtasun betea zalantzan jartzeak esan nahi du zalantzan jartzen direla hizkuntzen araubide juridikoa erregulatzeko bere garaian hitzartu ziren oinarri konstituzional eta estatutarioak. Atzera buelta bat ikusten dugu jarrera horretan. Atzera buelta bat diot, besteak beste 36 urteko ofizialtasun betearen ondoren planteatzen den arazoa neurri batean Auzitegi Konstituzionalak berak argitua duelako iraganean, zehazki Euskararen Legeari berari buruz 1986an eman zuen epaian (82/1986 epaia esan nahi dut).

Jaurlaritzaren posizioa azaltzeko hiru galderari erantzungo diet: legezkoa al da udaletako aktak euskaraz bakarrik egitea? Euskararen Legearen 8. artikulua behartzen al ditu udalak aktak euskaraz ez ezik gaztelaniaz ere egitera eta EAEn

kokatua den beste administrazio publiko bati, kasu honetan Estatuaren Administrazioaren Euskadiko Ordezkaritzari, aktak euskaraz ez ezik gaztelaniaz ere bidaltzera? Euskaraz bakarrik dauden aktak ez hartutzat eman ote ditzake EAEn dagoen administrazio batek euskaraz bakarrik daudelako?

Lehenengo galderari erantzuna 2568/1986 Errege Dekretuan eta Auzitegi Konstituzionalaren 1986ko eta 2010eko epai banatan aurkitzen da.

Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onartzen duen Errege Dekretua da azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretua, eta bere 86.1. eta 110.1. artikuluetan dago erantzuna. Hauxe diote zehatz-mehatz esanda:

“86.1. artikulua: “Las convocatorias de las sesiones, los órdenes del día (...) se redactarán en lengua castellana o en la lengua cooficial en la Comunidad Autónoma a la que pertenezca la entidad.

110.1. Será aplicable a la redacción de las actas lo dispuesto en el artículo 86.1., en cuanto a la utilización de las lenguas”.

Eta Auzitegi Konstituzionalaren 82/1986 epaian hitzez hitz esaten da honako hau, bere 2. oinarri juridikoan: “es oficial una lengua (...) cuando es reconocida por los poderes públicos como medio normal de comunicación en y entre ellos y en su relación con los sujetos privados, **con plena validez y efectos jurídicos**”. Eta epai horren beraren 3.oinarri juridikoan hitzez hitz hauxe esaten da: “Si es inherente a la cooficialidad el que, en los territorios donde exista, la utilización de una u otra lengua por cualquiera de los poderes públicos en ellos radicados **tenga en principio la misma validez jurídica, la posibilidad de usar solo una de ellas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente...**”.

Gure iritzian garbi dago euskaraz bakarrik idatzitako akten legezko balioa.

Bigarren galdera moduan galdetu dut ea Euskararen Legearen 8. artikulua behartzen ote dituen udalak aktak euskaraz ez ezik gaztelaniaz ere egitera eta bi hizkuntzetan bidaltzera EAEn kokatua den beste administrazio publiko bati, kasu honetan Estatuaren Administrazioaren Euskadiko Ordezkaritzari. Gobernuaren Ordezkaritzak baietz dio, eta gure iritzian hori ez da horrela. Gobernuaren Ordezkaritzak Euskararen Legearen 8.2. artikulua dioena interpretatzen du gure iritzian egokia ez den modu horretara, artikulua horrek esaten baitu “**Euskal Herriko Autonomia Erkidegoan kokatutako herri-aginteeek esku hartzen duten egintza**

**guztiak eta baita administrazioaren jakinarazpen eta adierazpenak ere bi hizkuntzetan idatzita egon beharko dute, salbu eta interesdun partikularrek (...) hizkuntza ofizialetako bat (...) aukeratzen badute**”.

Artikulu horren gainean Gobernuaren Ordezkaritzak egiten duen interpretazio estu eta desproporzionatua kasu guztietan egingo balitz, lege-kontrakotzat jo beharko lirateke elebrietan ez dauden Euskadin kokatzen den edozein aginte publikoren egintza guztiak, adibidez, Gobernu Ordezkaritzaren beraren hainbat dokumentu edo Euskadiko epaitegiek ematen dituzten ebazpen eta epai ugari, gaztelania hutsean baitaude, ez baitaude bi hizkuntza ofizialetan.

Absurdora iristeko bidea segurua izan ohi da gauzak muturrera eramaten direnean. Eta hori da kasu honetan ere gertatzen dena. Izan ere, hizkuntza ofizialak bi baldin badira, eta maila berean ofizialak, absurdoa baita uste izatea hizkuntza horietako batek ofizialtasun balioa galtzen duela bestearekin batera erabiltzen ez bada. Kontu hau Auzitegi Gorenak berak ere argitua du gutxienez bere bi epaitan.

Gure iritzian, arazoaren muina besterik da. Eta muina da, bereizi egin behar direla, batetik administrazioaren eta herritarraren arteko harremanen esparrua eta, bestetik, administrazioen arteko harremanena, eta hori ez du egiten Gobernuaren Ordezkaritzak. Muina da Euskararen Legearen 8. artikulua administrazioaren eta herritarraren arteko harremanen esparruari dagokiola bete betean, baina ezin dela aplikatu administrazioen arteko harremanetan. Hizkuntza eskubideak herritarrei aitortzen zaizkie, ez aginte publikoei. Herritarrak dira hizkuntza eskubideen subjektuak eta titularrak, eta Euskararen Legeko 8.2. artikulua hain zuzen ere herri aginteen eta “interesdun pribatuen” arteko harremanari dagokio, inola ere ez administrazioen arteko harremanari. Herritarrek bakarrik behartu dezakete administrazio bat hizkuntza ofizial bat eta ez bestea, edo ez bata bakarrik, erabiltzera. Garbiago esanda: herri-aginteek (Jaurlaritzak, Gobernuaren Ordezkaritzak edo udalek) hizkuntza obligazioak dauzkate, ez eskubideak, hain zuzen ere herritarrei aitortutako hizkuntza eskubideak betetzeko obligazioa dute. Horrexegatik, gure iritzian, herri-aginteek ezin dituzte herritarren eskubideak beretzat hartu, ezin dira herritarrenak baino ez diren hizkuntza eskubideez jabetu, eta esango nuke horretan ahalegintzen dela Gobernuaren Ordezkaritza. Justu horretan dago gakoa.

Gure araubidean hain zuzen ere hauxe da oinarri nagusia eta sakratua: herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzea, herritarrek hizkuntza ofiziala aukeratzeko daukaten eskubidea bermatzea. Herritarren eskubide hori da herri-aginteen gaintetik dagoena. Auzitegi Konstituzionalak berak 1986ko epaian, 3. oinarri

juridikoan, garbi esaten du: **“la posibilidad de usar (por los poderes públicos) sólo una de las lenguas en vez de ambas a la vez, y de usarlas indistintamente, aparece condicionada en las relaciones con los particulares por los derechos que la Constitución y los Estatutos les atribuyen”**.

Eta hirugarren eta azken galdera da, euskaraz bakarrik dauden aktak ez hartutzat eman ote ditzakeen EAEn dagoen administrazio batek, zergatik eta euskaraz bakarrik daudelako. Auzitegi Konstituzionalaren 86ko epaiak garbi adierazten du koofizialtasunak EAEn kokaturiko agente publiko guztiei eragiten diela, eta Estatuaren administrazioa ez dela eragin horretatik salbuesten (hala diote bigarren eta zazpigarren oinarri juridikoek). Epaiak, bere bederatzigarren oinarri juridikoan, beren beregi adierazten du agente publikoek hizkuntza ofizialetako bat erabili dezaketela hizkuntzaren ezagutza (euskararena kasu honetan) frogatzen duen interesdunaren eskubideak urratzen ez badira. Eta hau da arazoaren beste muin bat: Estatuaren Administrazioak Euskadin ezin du alegatu euskararen ezagutzarik eza, administrazio publikoa den neurrian behartuta baitago dokumentuak euskaraz ere tramitatzera.

36 urte pasa dira euskararen ofizialtasuna ezarri zenetik, eta 29 urte Auzitegi Konstituzionalak epai hori eman zuenetik. Ikusten ari garenaren argitan, pentsa liteke Estatuaren Administrazioa EAEn ez dela egokitu koofizialtasunaren betebeharrerara. Gure iritzian, euskaraz idatzi eta jasotako aktei onarpen legala ukatu eta akta horiek ez hartutzat jotzen dituenak urratzen ditu, inork urratzekotan, gure araubidea eta doktrina konstituzionala bera.

Gure koofizialtasun sisteman, herritarrek badute eskubidea hizkuntza ofiziala aukeratzeko, eta eskubide hori baliatzen ez badute bi hizkuntza ofizialetan egin beharko dituzte jakinarazpenak herri agenteek. Baina administrazioen arteko harremanetan bi hizkuntza ofizialetako edozeinek du legezko balioa, hain zuzen ere biak direlako ofizialak, maila berean ofizialak, eta euskararen ofizialtasuna ez delako ofizialtasun subordinatua. Eta, jakina, administrazioak behartuta daudenez bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan jardutera eta dokumentuak tramitatzera, ezin dute euskarazko agirien balio legala mugatu, are gutxiago ukatu. Ez behintzat gure legeria urratu gabe eta hizkuntza arloko oinarri konstituzional eta estatutarioak kolokan jarri gabe.

Hori da guk dugun ikuspuntua, eta horretan oinarrituta eman ditugu sailburuak azaldu dituen pauso guztiak. Kezkatzen gaitu Gobernu Ordezkaritzaren jokamoldeak ere, ez dugu uste hori denik bidea. Herri Administrazioen Araubide Juridiko eta Administrazio Prozedura Komunaren 30/1992 Legearen 3.2. artikuluan jasota dago honako hau: **“las Administraciones públicas, en sus relaciones, se rigen por el**

**principio de cooperación y colaboración**". Bistan da Gobernuaren Ordezkaritzak, tamalez, ez duela kooperazioaren eta elkarrizketaren bidea aukeratu, baizik eta judizializazio sistematikoaren aukera egin du.

Beste kontsiderazio batekin bukatu nahi dut. Euskara eta gaztelaniaren arteko koofizialtasuna, erabiltzeko eskubideari dagokionez eta hizkuntza bataren eta bestearen balio legalari dagokionez, koofizialtasun simetrikoa edo berdinkidea da. Baina ondo dakigunez, berdintasun formalak ez du nahitaez berdintasun materiala esan nahi; berdintasun legalak ez du berdintasun soziala esan nahi. Genero berdintasunari begiratzea nahikoa dugu. Eta begien bistakoa da euskara eta gaztelaniaren arteko desoreka soziala. Hain zuzen ere horrexegatik daude herri aginte guztiak legez behartuta hizkuntza minorizatuen erabilera sustatzera. Hori ere legezko obligazioa da. Estatuaren sustapena egitera behartuta dago Konstituzioaren beraren 3.3. artikulua eta Euskararen Legea beteko baditu. Eta behartuta dago Espainian 2001 urteaz geroztik indarrean dagoen Europako Eremu Urriko Hizkuntzen Karta beteko badu. Eurokarta horretako 7. artikulua araberak, beharrezkoa da herri aginteek hizkuntza gutxituen aldeko ekintza positiboa garatzea. Kartaren sinatzaileek, Estatu sinatzaileek alegia, eremu urriko hizkuntzak sustatuko dituzte (7.1.c artikulua), euren ahozko eta idatzizko erabilera erraztu edo sustatuko dute (7.1.d artikulua), administrazio aginteek hizkuntza horiek erabil ditzaten zainduko dute (10.1.a.i artikulua), administrazio aginteek dokumentuak hizkuntza horietan idatz ditzaten onartuko dute (10.1.c artikulua), toki erakundeen esparruan hizkuntza horien erabilera onartu edota sustatuko dute (10.2.a artikulua).

Gure iritzian ez dator bat akten hizkuntzen auzian Estatuaren Administrazioa Gobernuaren Ordezkaritzaren eskutik egiten ari dena eta Eurokartak agintzen duena. Herri aginte guztiena den bezala da Estatu Administrazioaren obligazioa, euskararen erabilera sustatzea, ez oztopatzea. Eta akten auzian Gobernuaren Ordezkaritza gaur ez da ari euskararen erabilera sustatzen, oztopatzen baizik. Udalak euskaraz egin dituzten aktak edo onartu dituzten akordioak nahitaez gaztelaniaz jartzera behartzen dituenean, gaztelaniaren erabilera sustatzen du, eta zaildu euskararen erabilera. Hori ez da euskara erabiltzeko pizgarri eta bultzada, traba eta zailtasuna baizik. Eta gainera gure iritzian ez dator bat legeriarekin.